Baliteke animalia ezezagun bat izatea



Pixabay

Adarbakarrak existitzen al dira? Bada horrelako animalia fantastikoak ikertu dituenik. EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren bideo baten bidez, gai horren berri izango dugu.

Sekuentzia honetan, hau egin dezakezu:

- **Bideoan ikusitakoari buruzko ulermena landu.**
- **Probabilitatea eta ziurtasuna adierazteko baliabideak landu.**
- **Asmatutako animalia baten ikerketa-fitxa sortu.**
- **Animalia fantastiko horren aurkezpen formala egin, ahoz, ikaskideak konbentzitzeko asmoz.**

Ikusi aurretik

BAKARKA

1. Asmatutako animaliak?

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Ezagutzen al dituzu animalia hauek? Existitzen dira? Zer dakizu haien inguruan? Besteren bat bururatzen al zaizu?



1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____
6. _____

Aurrerago, ikaskideekin partekatuko duzu.
Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

BAKARKA

Ikusi bitartean

2. Zer kontatu digute bideoan?

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Ikusi arretaz EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren bideoa, eta saiatu hitza definitzen.

Kriptozoologia: _____
_____
_____
_____
_____


Katedra

Existitu ez diren animalien historia

Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

KATEDRA

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Aukeratu erantzun zuzena.

1. Nor zen Bernard Heuvelmans?
a) Idazle fantastikoa.
b) Zoologoa eta kriptozoologiaren sortzailea.
c) Kazetaria.


Katedra

2. Zoologiak ezin zuen lan hori bere gain hartu...
a) animaliak desagertu zirelako.
b) ikertzaile gutxi prest zeudelako.
c) benetako animaliak soilik aztertzen dituelako.

3. Zer aztertzen du kriptozoologiak?
a) Desagertutako dinosauroak.
b) Zalantzazko frogen bidez ezagutzen diren animaliak.
c) Itsasoko animaliak.

4. Zer egin zuen Heuvelmansek 1955ean?
a) Museo bat sortu zuen.
b) Lehen tratatua argitaratu zuen.
c) Dokumental bat grabatu zuen.

Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

BAKARKA

Esan, bideoan entzundakoaren arabera, esaldiok egia ala gezurra diren.

1. Heuvelmans umetatik zaletu zen animaliekin. E G
2. Zoologia ikasi zuen. E G
3. Bere animalia gogokoenak existitzen ez ziren horiek ziren. E G
4. Ikertzeko, zoologiarentzat ezinbestekoa da animaliak bizirik egotea. E G
5. Kriptozoologiak froga zientifiko sendoak erabiltzen ditu. E G
6. Kriptozoologian honelako frogak aski dira: lekukotzak, grabazio txarrak eta zalantzazko arrastoak. E G
7. Heuvelmansek animalia asko katalogatu zituen bere ibilbidean, eta gehienak benetakoak zirela frogatu zuen. E G

Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

Ikusi ondoren

TALDEAN

3. Baliteke iruzurra izatea

Elkartu ikaskide batekin; erreparatu bideoko azken esaldiari, eta erantzun galderei.

Heuvelmans 2001ean hil zen, Parisetik oso gertu. Gaur egun, baliteke hegodun unikornio baten gainean ibiltzea. Seguru pozik egongo zela horrela.

1. **Zer tonu du amaierako esaldiak?**
   a) Objektiboa eta neutroa.
   b) Ironikoa eta umoretsua.
   c) Kritikoa.
   d) Akademiko hutsa.

2. **Zein baliabide erabili ditu probabilitatea edo ziurtasuna adierazteko?**

Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

TALDEAN

Jarraitu ikaskidearekin, eta aztertu zer funtzio duten esaldiok. Horretarako, taulan zehaztu beharko duzue zer adierazten duten: ziurtasuna/ziurtasun eza ala probabilitatea.

		Ziurtasuna bai/ez	Probabilitatea
1	Norbaitek gezurra esan duelakoan nago.		
2	Animalia misteriotsu hori irudimen kolektiboaren ondorioa izan liteke.		
3	Gerta daiteke zoologiari ekarpen handia egitea.		
4	Baliteke Heuvelmansek egindako lana iruzurra izatea.		
5	Litekeena da lekukotza haiek urteetan herriaren irudimenean handituz joan den istorio baten parte izatea.		
6	Jakina denez, kriptozoologia animalia misteriotsuak ikertzen saiatzen da.		

Jarraitu ikaskidearekin, eta irakurri ondoko egoerak. Egoera bakoitzeko, hiru hipotesi formulatu behar dituzue, lehenengo adibideari jarraikiz.

1. Mendi batean, arrasto erraldoiak aurkitu dituzte.
- *Baliteke animalia ezezagun bat izatea.*
- *Litekeena da muntaketa bat izatea.*
- *Antza denez, mendizaleek arrastoak gaizki interpretatu zituzten, eta azalpen arruntago bat dago.*

2. Bideo batean itzal misteriotsu bat ikusten da.

_____

_____

_____

3. Hainbat lekukok diote animalia arraro bera ikusi dutela.

_____

_____

_____

Partekatu erantzunak talde handian. Erantzunak 7. orrialdean daude.

ZENBAIT MODALIZATZAILE

Probabilitatea
Seguru asko, nonbait, dirudienez, antza denez, itxuraz, omen/ei, diotenez, ematen du, baliteke, litekeena da, etorriko zen (iraganaren etorkizuna), izan zitekeen (ahalera), esango nuke...


Ziurtasuna
Jakina, ezbairik gabe, nire ustez, zinez, jakina denez, bistan dago...
Ziurtasun eza
Agian, apika, -(e)lakoan nago, beharbada...

TALDEAN

4. Egon badaude

Elkartu hiruko taldeetan, eta komentatu: Euskal Herriko folklorean ba al dugu horrelako animaliarik? Jarraian, jarri Bernard Heuvelmansen azalean. Animalia misteriotsu baten inguruko "ikerketa-fitxa" prestatuko duzue; horretarako, ondoko atalak bete behar dituzue.

- Animaliaren izena eta marrazkia
- Deskribapena
- Non bizi den
- Portaera
- Elikadura
- Zein froga dauden
- Lekukotzak
- Taldearen hipotesiak
- ...



Adimen artifizialak egindako irudia

Erakutsi irakasleari, zuzentzeko.

TALDEAN

5. Animalia misteriotsuaren aurkezpena

Jarraian, animalia horren aurkezpen formala egingo duzue, talde handian. Irudikatu Kriptozoologia-adituen aurrean zaudetela; hortaz, azalpen ongi argumentatua egin beharko duzue. Helburua izango da zeuen proposamena ontzat ematea.



Adimen artifizialak egindako irudia

Gainerako ikasleek galderak egin ditzateke. Aurkezpen guztiak egindakoan, itzuli hasierako taldeetara, eta erabaki zein onartuko zenituzketen.

KONTUAN HARTU:

- **Aski froga aurkeztu dituzte?**
- **Sinesgarria al da? Iruzurra izan liteke?**
- **Zer esango luke komunitate zientifikoak?**



Wikipedia

Erabaki, talde handian, zein animalia onartuko duzuen. Irakasleak emango dizue feedbacka.

ERANTZUNAK

1. Asmatutako animaliak?
1- Ness aintzirako munstroa; 2- Yeti, elurretako gizon izugarria; 3- herensugea; 4- Zezengorria; 5- adarbakarra

2. Zer kontatu digute bideoan?

- Kriptozoologia: benetan errealak diren ala ez demostratu ez den animalien ikerketarako sasi-zientzia da. Aurkitu gabeko animalia horiei kriptidoak izena ematen zaie, eta ikertzaileei kriptozoologoak.
- 1- b; 2- c; 3- b; 4- b
- 1- egia; 2- egia; 3- egia; 4- gezurra, ezinbestekoa da animaliak benetakoak izatea; 5- gezurra, zeharkako frogak erabiltzen ditu;
  6- egia; 7- gezurra, ez zuen frogatu animalia haiek benetan zirenik.

3. Baliteke iruzurra izatea

- 1- b; 2- probabilitatea: baliteke; ziurtasuna: seguru
- Ziurtasuna/ziurtasun eza: 1, 6
  Probabilitatea: 2, 3, 4, 5
- Erantzun posibleak:
  2- Litekeena da grabazioa manipulatuta egotea eta irudi faltsua izatea.
  Jakina denez, argiaren eta kameraren efektuek itzal misteriotsuak sor ditzakete batzuetan.
  Argien efektua izan zitekeen.
  3- Litekeena da kontakizunak elkarren eraginez handitzen joan izana, eta animalia benetan ez existitzea.
  Antza denez, gertakari misteriotsuek jendearen irudimena pizten dute, eta horrek lekukotzak baldintza ditzake.
  Bistan dago lekukotza ugari egoteak interesa eta sinesgarritasuna handitzen dituela.

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Ospea ere lortu zuen. Fama, izen ona lortu zuen.
Ezta hurrik eman ere! Ezta inondik ere!
Folkloreak sortutako izakiak. Herri-kulturak sortutako bizidunak.
Lekukotzak. Zerbait ikusi izana, zerbaiten berri izana adieraztea.
Bazter utzitako piztiak. Alde batera utzitako animalia edo izaki basatiak; baztertuak, zokoratuak.
Esan gabe doa. Esan beharrik ez dago, bistan denez, argi eta garbi dago.

TRANSKRIPZIOA

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Kultura Zientifikoko Katedraren Zientziaren historia.

Gizon hori Bernard Heuvelmans da. Frantzian jaio zen 1916an, eta umetatik zaletu zen animaliekin. Zoologia ikasi eta ospea ere lortu zuen arlo horretan. Baina Heuvelmanasi gehien gustatzen zitzaizkion animaliak ez ziren bere kideek gehien maite zituzten horiek, ezta hurrik eman ere! Izan ere, bere animalia gogokoenak existitzen ez ziren horiek ziren. Heuvelmansek folkloreak sortutako izakiak maite zituen —esaterako, Ness lakuko munstroa, elurretako gizon izugarria edo itsas suge beldurgarria—, eta erabaki zuen zientziaren aztergai izan behar zutela.

Baina arazo bat zegoen, noski: zientziaren zein arlok hartu behar zuen bere gain lan bitxi hura? Zoologiak ezingo zuen egin, funtsean zoologiarentzat ezinbestekoa delako animaliak benetakoak izatea. Hortaz, Heuvelmansek ez zuen beste aukerarik izan, eta diziplina berri bat asmatu zuen: “kriptozoologia” izena jarri zion. Kriptozoologiak animaliak aztertzen ditu, baina haien existentzia zeharkako frogen bidez soilik baieztatu badaiteke: lekukotzak, desfokuratutako grabazioak eta zalantzazko arrastoak.

1955ean, Heuvelmansek kriptozoologiari buruzko lehen tratatua argitaratu zuen, *Bazter utzitako piztien arrastoaren atzetik*. Ale mordoa saldu ziren, baina esan gabe doa Heuvelmansek ez zuela frogatu animalia haiek benetan bazirenik. Edonola ere, irudimenak sortutako 600 animalia baino gehiago katalogatu zituen bere ibilbide osoan.

Heuvelmans 2001ean hil zen, Parisetik oso gertu. Gaur egun, baliteke hegodun *unikornio* baten gainean ibiltzea. Seguru pozik egongo zela horrela.